

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA, ARRAZAKERIAREN ETA XENOFIARIAREN AURKAKO NAZIOARTEKO EGUNA DELA ETA

Nazio Batuen erakundeak martxoaren 21a aukeratu zuen xenofobiaren eta arrazakeriaren aurkako egun gisa, apartheidaren aurka protesta egiten ari zirela Hegoafrikako poliziak egun horretan eraildako 69 pertsona beltzen omenaldi modura.

Gure herrialdean lan handia eta esfortzu nabarmena egin da legediaren, estrategien eta praxi politikoen arloetan, politika sozialetan, herritarren jokabideetan, arrazakeria eta xenofobia modu guztien kontra eta pertsona atzerritarrak eta etnia eta arraza gutxiengoetakoak integratzearen alde borrokatzeko.

Gaur egun, kultura aniztasuna gure hiri guztietako errealitate bat da, eta lagungarria da arlo ekonomikoan, sozialean eta kulturean aurrera egiteko, baita elkarbizitzan eta errespetuan oinarritutako gizarte inklusiboa garatzeko ere, ezein gizaki ez dadin baztertu edo ikusezin gisa tratatu.

Basauriko Udala, udalerriko etorkinen elkarteak (Solidaridad Euskalmon, Indoukal, Asaada eta Mujeres en la Diversidad), gainerako sare soziala eta herritarrak ere erantzukizunkide gara eta elkarrekin lanean ari gara elkarbizitzarako, egunez egun modu aktiboan inplikatur geure herrian eta gure inguruan arrazakeria eta xenofobia desagerrarazteko ekimen guztietan.

Martxoaren 21a **Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako Nazioarteko Eguna** dela eta, eta giza eskubideen defendatzaile garenez, adierazpen hau babesten dugunok uste dugu publikoki lerrokatu behar dugula arrazakeriaren eta xenofobiaren aurka, eta dei egiten diegu beste erakunde, entitate eta pertsona batzuei ere, aniztasun kulturalarekin eta elkarbizitzarekin duten konpromisoa ager dezaten. Eta elkarrekin lan egin dezagun gure herria toki hobe bihur dadin herritar guztientzat eta etorriko diren belaunaldientzat.